

Aurkeztutako gazteen % 96k gainditu zituzten 2011ko selektibitateko probak

D ereduko gazteen artean eman zen gaindituen portzentajerik handiena

Eustaten datuen arabera, 10.164 gazte aurkeztu ziren 2011. urtean Euskal AEko unibertsitatera sartzeko probetara. Horietako 9.702k gainditu zituzten probak, hau da, % 95,6k; gainditutakoen batez besteko nota (batxilergoko notarekin haztatuta) 6,8 izan zen, ia “oso ongia”. Halaber, aurkeztu zirenen % 61ek euskaraz egin zituzten probak, 2010. urtean baino puntu eta erdi gehiagok. Bi urteotan, gainera, batez besteko nota bera lortu da.

Ekaineko deialdira 8.517 ikasle aurkeztu ziren eta horietako 8.243k gainditu zuten, hau da, % 96k; uztailako deialdian 1.718 gazte matrikulatu ziren eta 1.497k gainditu zuten, % 89k.

Aurkeztutakoen artean emakumezkoak izan ziren nagusi: 5.564 emakume (% 54,7) eta 4.600 gizon (% 45,3). Batzuen eta besteen emaitzak oso antzekoak izan ziren: % 95,3 eta % 95,6 izan ziren gainditu zutenak, hurrenez hurren. Eta batez besteko notetan ere ez zen alde handirik gertatu: 6,7koa lortu zuten mutilek eta 6,9koa neskek.

Titulartasunari dagokionez, ikastetxe pribatuetatik etorritako ikasleen % 96,4k gainditu zuten proba, ikastetxe publikoetako gaindituen ehunekoa (% 94,4) baino bi puntu gehiago.

Gaindituen ehunekoak ikasketen hizkuntza ereduaren arabera alderatzen badira ikusten da D eredua eta A eredua aukeratu zutenen artean ehuneko lau puntuko aldea egon zela: gainditutakoen % 97,1ek D ereduan ikasi zuten eta % 92,9k A ereduan.

1. Taula.- Aurkeztu eta gainditu zuten ikasleak, deialdiaren arabera

	Aurkeztuak			% Gaindituak		
	Guztira	Ekaina	Uztaila	Guztira	Ekaina	Uztaila
Euskal AE	10.164	8.517	1.718	96	97	87
Araba/Álava	1.365	1.137	244	96	96	89
Bizkaia	5.079	4.248	889	95	96	85
Gipuzkoa	3.720	3.132	585	96	98	89
Gizonak	4.600	3.738	861	95	97	89
Emakumeak	5.564	4.779	857	96	97	86
<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>4.850</i>	<i>3.911</i>	<i>948</i>	<i>94</i>	<i>96</i>	<i>88</i>
<i>Ikastetxe pribatuak</i>	<i>5.307</i>	<i>4.599</i>	<i>770</i>	<i>96</i>	<i>97</i>	<i>86</i>
A eredua	3.983	3.318	731	93	94	81
D eredua	6.181	5.199	987	97	98	92

Iturria: Eustat. Euskal AEko Unibertsitate-estatistika 2010-11

Bestalde, unibertsitatera sartzeko probak gainditu dituztenen ehunekoetan ez da lurralde batetik bestera alde handirik gertatu: Gipuzkoan % 96,4 izan da gainditu dutenen ehunekoa, Araban % 95,6 eta Bizkaian pixka bat txikiagoa, % 94,7.


A ereduko ikastetxe publikoetan ikasi duten ikasleek emaitza okerragoak ateratu dituzte

Azken hamar urteotan selektibitateko probak gainditu dituztenen ehunekoak, titulartasuna eta hizkuntza ereduak aintzat hartuta aztertuz gero, alde handiak daudela ikusten da. Ikastetxe pribatuetan hizkuntza ereduaren aldagaiak ez du eraginik izan selektibitateko emaitzetan, baina ikastetxe publikoetan hizkuntza ereduak ezberdintasunak ezarri ditu.

Izan ere, hamar urte hauetan A ereduan eta ikastetxe publikoan ikasi zutenen ehunekoak % 83 eta % 89 artekoak izan ziren; batez bestekoa % 87 izan zen, beraz. Baina ikastetxe publikoetan D ereduan ikasi zutenen ehunekoak % 94 eta % 97 artekoak izan ziren, eta batez bestekoa % 95. Hots, ehuneko zortzi puntuko aldea izan da azken honen alde.

Ikastetxe pribatuetan, aldiz, A eta D ereduan ikasi zutenen ehunekoen arteko aldeak minimoak izan ziren: batez bestekoak % 94,8 eta % 95,5 izan ziren, hurrenez hurren. Hala ere, azken hiru urteetan, D ereduko ikasleak nabarmendu egin dira eta gorago geratu.

1. Grafikoa.- Gainditu duten ikasleak titulartasunaren arabera banatuta (%).



Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistika (2010-11)

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Matxalen Plagaro

Tel.:+34-945-01 75 99 Faxa:+34-945-01 75 01

Euskal AEKo Unibertsitate-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Unibertsitate-estatistikari buruzko datu-bankua